



Gipuzkoako Sendagileen Elkargoa, Lehen Mailako Arretako profesionalak bizi duten egoerak kezkatua

Gipuzkoako Sendagileen Elkargoa “oso kezkatua” dago lurraldeko Lehen Mailako Arretako profesionalak bizi duten egoeratik, izan ere, urteak baitdaramatzate euren lan-baldintzetan narriadura egunetik egunera handiagoa jasaten.

Egoera hori ez da berria, ordea, ezta gutxiagorik ere. Gipuzkoako Lehen Mailako Arreta, Estatukoa bezalaxe, ahulduz joan da azken urteotan, krisi-garai honetan egin diren murrizketen ondorioz. Egoera ekonomikoaren hobekuntzak, aitzitik, apenas izan duen islarik osasun-sistemaren baitan. Elkargoko presidente Manuel García Bengoecheak azaltzen duen bezala, *“Lehen Mailako Arretako medikuek lan-baldintza oso gogorak jasaten jarraitzen dute, hasi kontsulta masifikatu eta gainbeteetatik guztiz kezagarria den lan-kolokatasuneraino”*.

hain zuzen ere Horrela, bada, *“profesional medikoen higadura ikaragarria da; urteak daramatzate beren ahalegin guztiak eskainiz pazienteei arretarik egokiena eman nahian, baina euren profesionaltasuna eta lan eskerga gutxietsia izan da, egoerari ez baitzaio oraindik ere erantzun zuzenik eman”*. Bengoechearen hitzetan, lankide ugari dira *“estresatuak, haserre eta inolako motibaziorik gabe aurkitzen direnak”*.

Ez da kasualitatez gertatu, adibidez, azken hilabeteotan Gure Osasuna Zainduz izeneko [plataforma](#) sortzea, edo duela gutxi erabat gauditua sentitzen zen mediku batek irtenbideak eskatuz egindako [gutuna](#) argitaratzea, milatik gora atxikipen jaso dituen.

Egitura-mailako hobekuntza

Lehen Mailako Arreta da osasun-sistamarako sarrera-atea. Eta Elkargoko presidentek baieztatzen duen moduan, *“baita gure sistemaren oinarria ere. LMko profesionalak dira pazienteen ezagutza orokorra dutenak, eta maila horretan konpontzen dira, hain zuzen ere, kontsulten % 90”*.

Bengoechearen hitzetan, *“ezinbestekoa da profesionalak mediku/paziente ratio egokia eta laneko kontratu iraunkorra edukitzea. Kontratuen behin-behinekotasunak eragin zuzena du pazienteengan, oheburuko medikuaren aldaketak etengabeak izan ohi baitira sarritan, eta aldaketa horien eraginez gaixoa ez baita iristen medikuarengan konfiantzarik izatera. Baina zerbitzuaren kalitateari ere eragiten dio, pazientearekiko erantzukizunak eta erabakiak oso modu diferentean hartzen baitira zure lanpostua egonkorra edo behin-behinekoa besterik ez denean”*.



GIPUZKOAKO SENDAGILEEN ELKARGO OFIZIALA
COLEGIO OFICIAL DE MÉDICOS DE GIPUZKOA

Horregatik guztiagatik, *“egoera horri ahalik eta lehenbailehen heltzea”* eskatu nahi dio Administrazioari Gipuzkoako Sendagileen Elkargoak, *“eta ez baliabide ekonomiko gehiagorekin bakarrik, profesional sanitarioen lan-baldintzak hobetzeko balioko lukeen eta lanerako ilusioa atzera bueltatuko liekeen egitura-mailako proiektu batekin baizik. Dena ez baita zenbaki eta kalkulu hutsa, kalitatea ere zaindu beharra baitago, eta zoritxarrez azken hori okerrera baitoa”*.